



EBAZPENA, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2021eko urtarrilaren 12koa, ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako beka aplikatzeko zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzetarako deialdiaren 2021eko urtarrilaren 11ko ebazpena aldatzen duena.

Hezkuntza sailburuaren 2020ko urriaren 27ko Aginduaren bidez, azaroren 4ko 218 zbk. EHAA, ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako beka aplikatzeko zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzetarako deialdia egin zen.

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2021eko urtarrilaren 11ko Ebazpenaren bidez, ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako beka aplikatzeko zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzak ebatsi ziren.

Aipatutako ebazpenean eta beren I eranskinean aurkitutako akatsak direla eta

### E B A T Z I D U T

Lehenengoa.- Emandako diru-laguntzen zenbateko osoa aldatzea, guztira 174.725 euro.

Bigarrena.- Onuradunen zerrenda eta beraiei dagozkien diru-laguntzak aldatzea ebazpen honi atxikitako I. eranskinaren arabera.

Hirugarrena.- Ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote Hezkuntza sailburuari, argitaratu eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 12a

  
  
HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

ADOLFO MORAISEZQUERRO  
UNIBERTSITATE ETA IKERKUNTZAKO SAILBURUORDEA